

DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 303. zenbakia. 2021eko iraila



**Gure emakumeak
hamaika saltsatan**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa,
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Meritxell Sanchez, Miren Astarloa
eta Alboka Musika Eskola.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentín Mugarza
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola,
Elisabeth Areitioaurtena,
Asier Arellano,
Artarra Mendi taldea,
Miren Astarloa,
Gaztela eta Leongo Kultur Zentroa,
Estibalitz González,
Valentín Mugarza,
Meritxell Sanchez, Juli Tirados,
Ermuko Udala,
Dorleta Vidal, Jabi Vidal,
Olatz Vidal
eta Jone Zalduegi.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: ume-kanta

Kirikirikaiz

(Entzuteko: www.alboka.es)

Ez da gauza erreza kirikirikaiz-kirikirikaiz,
ez da gauza erreza ama gezurtatzen.
Kiri-kiri kendu dana jakiten du,
kiri-kiriki zelan badaki?
Kiri-kiri ko ko-ko-ko haur txikiñak esaten dio,
kiri-kiri ko ko-ko-ko dan-dana esaten dio.
Eztia ontxitxik kirikirikaiz-kirikirikaiz,
eztia ontxitxik hatza sartzen badet.
Eskolara igesi kirikirikaiz-kirikirikaiz,
eskolara igesi hortik juaten banaiz.
Neskatzak burrukan kirikirikaiz-kirikirikaiz,
neskatzak burrukan ibiltzen bagera.
Jaietan igari kirikirikaiz-kirikirikaiz,
jaietan igari ihes eitxen badet.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA 4 <i>Meritxell Sanchez (Gandia)</i>	ERMUAN ZER? 17 <i>Ziberindarkeriaren aurkako ikastaroa</i>
ERREPORTAJEA 5-7 <i>José Merino Memoriala</i>	IRITZIA..... 18 <i>Txakur aurpegia</i>
MALLABIAN ZER? 8-9 <i>Maritxu Roteta sopranoa</i>	BOTEPRONTOAN 19 <i>Elisabeth Areitioaurtena</i>
ERREPORTAJEA 10-11 <i>Ibaibarriagatarak frontoietan</i>	ANTZINAKOAK 20 <i>Ermuko eta Mallabiko argazkiak</i>
MOTZEAN 12-15 <i>Bertso Saioa urrian</i>	ZORION-AGURRAK..... 21 <i>Saldu, erosi edo agurtu</i>
ZAHARRAK BERRI 16 <i>Miren Astarloa</i>	URRIKO AGENDA..... 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Meritxell Sanchez

Batxilergoa bukatu ondoren Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua egitera joan zen Gandiara (Valentziako Erkidegoa). Lekua ezaguna zuen, bertan uda asko pasatutakoa baitzen, eta dagoeneko 6 urte daramatza bertan.

- Etxetik alde egitea erabaki erraza izan zen?

Bai, benetan, aldaketarako gogoia neukan. Gurasoen etxean bizi nintzen eta esperimintatu nahi nuen zer zen haien etxetik kanpo bizitzea independentea izateko: nire kabuz janaria prestatu, arropa garbitu...



- Gandian zaudenetik, zer-baitek jo dizu arreta?

Bai, esaterako, hamaiketako-rean ordez *esmorzar* delakoa egiten dute. Ogi tartean pila bat janari jartzen dute: goiz erdia izateko pila bat jaten dute! Berezia da. Bestalde, ohikoa da ere igandero paella bazkaltzera joatea.

- Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan?

Egun osoan zehar valentziarra entzuten ari naiz, lanean nagoenean lankideek valentziarrez hitz egiten baitute. Ulertzeko erraza da eta ez dut inolako arazorik jendearekin hitz egiteko. Dena den pena handia eman dit euskaraz nuen gaitasuna galtzea, aspaldian ez dudalako hizkuntza horretan hitz egiten. Deskonexio horren ondorioz, kostatzen zait euskaraz hitz egitea.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goizean lanera joaten naiz: diseinuko mugikorrek lan egiten duen enpresa batean dihardut. Arratsaldetan lagunekin kirol apurtxo bat egiteko aprobetxatzen dut batzuetan. Bestela, edozein momentutan hondartzara joan gaitetzke.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Gertuko jendea, familia eta lagunak. Nire ahizpa ama da, eta familiarekin denbora gehiago egotea gustatuko litzaidake. Gainera, orain arte egon diren neurriekin ez da hain erraza izan bidaiatzea, edo lehen genuen bizitzaz gozatzea. Horrez gain, Ermuak bakarrik dituen gauzak botatzen ditut faltan: ez dago Santixauak eta San Martin Azoka bezalakorik!

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Ez dut ondo oroitzen, baina oker ez banago iazko abenduan joan nintzen. Egiten ditudan bisitak oso laburrak izaten dira, eta familia ikusteko aprobetxatu ditut batik bat.

- Nola irudikatzen duzu zure etorkizuna?

Beste herrialde batzuk eza-gutzeko gogoia dut, baita beste hizkuntza batzuk ikasteko gogoia ere. Herbereetara joan nintzen Erasmusa egitera, bertako hegoaldean dagoen hiri batera, eta esperientzia mundiala izan zen. Horrelako zerbait berriro egiteko gogoia daukat.

Libe Solozabal

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



José Merino Gaztela eta Leongo Zentro kultureleko bazkide egin zen egunean, 1984. urtearen inguruan.

José Merino Memoriala, lasterketaren atzean dagoen historia

Ermuko Gaztela eta Leongo atletismo taldeak prestatu du dagoeneko XXXIII. Merino Memoriala burutzeko ekitaldien programa, irailaren 25ean gauzatuko dena. Lasterketa ezaguna da gurean; ezezaguna askorentzat, ordea, haren atzean dagoen izena. José Merino ermuarra lan istripu batean hil zen, 1988ko maiatzaren amaieran. Ordutik aurrera irailaren bukaeran edo urriaren lehen asteetan burutzen da José Merino Memoriala, Ermuko Gaztela eta Leon Kultur Etxeko bazkideari omenaldia egiteko helburuarekin.

Manolo Merino, José Merinoren semea:

“Gogoan ditut entrenatzen pasatzen genituen arratsaldeak”

- Nor izan zen José Merino?

José Merino 1979an Leondik etorritako langilea zen. Bere denbora librean atletismo taldeko umeak entrenatzen zituen, eta geroago nagusien entrenatzaile bilakatu zen. Bost seme-alaben aita itzela izan zen, denbora asko eskaintzen zigun eta oso maitagarria zen. Oraindik gogoan ditut elkarrekin korrika egiten eta entrenatzen ematen genituen arratsaldeak...

- Nola hasi zen atletismoaren munduan?

Gaztela eta Leon Kultur Etxeko bazkidea izan zen, eta urte batean lasterketa bat antolatu zuten elkarteko bazkideentzat



Manolo Merino, José Merinoren semea.

bakarrrik. Handik urte batzuetara, izena aldatu, eta Ermuko Cross Lasterketa izendatu zu-


ten. Hortik aurrera bete-betean sartu zen nire aita kirol honetan.

- Zer gertatu zen 1988an?

1988an Zaldibarko enpresa batean makina batek eztanda egin zuen, eta bertan zeuden 4 langile hil zituen. Horietak bi momentuan hil ziren, baina nire aitak 3 egun eman zituen ospitalean.

- Hortik aurrera, Merino Memoriala urtero ospatu duzue?

Hala da, bere lagunaren eta elkarteko kideen bitartez —batez ere Santi Fuertes, haren lagun mina zena—, Ermuko Cross Lasterketa, José Merino Memoriala deitzera pasatu zen. Gaztela eta Leon Kultur Etxeak antolatu du beti lasterketa, eta inguruko herrietan ospe handia izan du.



José Merino, ezkerrean, eta Santi Fuertes, eskuman.

"José Merinok herriko ekintzetan parte hartzen zuen beti, batez ere Gaztela eta Leon Kultur Etxearekin harremana zuten horietan. Edozein momentutan laguntzeko prest zegoen, bere lagunaren lagun handia. Nire lagun mina izan zen, eta ziurtatu dezaket, edonori galdetuz gero, esango duela pertsona ezin hobea zela".

Santi Fuertes, José Merinoren laguna

José Merino Memoriala. Lasterketa.

Hasiera batean, elkarteko bazkideek eta haien seme-alabek bakarrik parte hartu zezaketen lasterketa honetan, baina gaur egun edonork eman dezake izena.

Inguruko herrietan lasterketa ospetsua da, eta urtero Ermutik kanpoko kirolari asko hurbiltzen dira gurera. Aurten, COVID-19aren ondorioz, ezingo ditu adin guztietako korrikalariak bildu, eta 16 urtetik gorakoek bakarrik hartuko dute parte.

Lasterketak 10 kilometro ditu eta ibilbideari 4 buelta ematen zaizkio. Zubiaurren du hasiera, Valdespinako markesa eta Diputazio kaletik igaro behar da, eta kiroldegiraino heldu. San Pelaio kaletik jarraituz, Giroa tabernaraino joan behar da, bertan buelta emanez. Ondoren VI. Mendeurrena kaletik igotzen da, Okinzuriko parkeraino, eta Zubiaurre berriz jaitsez hasierara bueltatzen da.

Eneko López

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Drogeteniturrri, 303 zk.



Karel Las lilas ile-apaindegia

- Ilea moztu (gizona edo emakumea) 9€
- Tindatu 15€
- Orraztu 12€
- Metxak 20€
- Metxa kaliforniarrak 25€
- Permanentea 26€
- Manikura 9€
- Esmaltatu permanentea 18€
- Gelezko azazkalak 25€

*Astelehenetan
ere zabalik!*



*Aurretiko
txandarekin
bakarrik*

Zearkalea 12, 1. peora, 3. atea · ERMUA (BIZKAIA) · 698 91 07 21

Maritxu Roteta, sopranoa:

“Abesten gozaten dut, nire bizitzako poza da”

Maritxu Roteta (Alkitza, 1948) 50 urte baino gehiago daramatza kantuaren munduan. Sopranoa da, musika ikasketak ditu, hainbat abesbatzatan jardun du eta Mallabiko Jasokunde koroa sortu zuen. Egun Ermuko Pispillu abesbatzan dihardu, pandemia aurreko erritmoa hartu nahian.

- Zer dela-eta hasi zinen koroetan abesten?

Betidanik gustatu izan zait kantua, baina ezin nuen gustura abestu: elizan behe-erregistroan abesten baita, eta nik goi-erregistroa daukat, sopranoa naizelako. 15 urterekin Alkitzatik Donostiara joan nintzen lanera, saltzaile, eta garai hartan koro ugari zeudenez, bururatu zitzaidan haietako batean izena ematea: Schola Cantorum-en. Hartu ninduten, eta 53 urte igaro dira ordutik.

- Luzaroan egon zinen bertan?

Hiru urte eman nituen, eta Corral de Cámarara aldatu nintzen gero, Donostian ere. Abesbatza txikiagoa zen, eta kide guztiek zituzten musikako ikasketak. Hori ikusita, ikasteari ekin nion. 20 urterekin heldu nion solfeoari, eta titulua atera nuen. Aldi berean kantua ikasi nuen Baionan 3 urtez: astelehen goizean jai neukan dendan, eta egun horretan joaten nintzen teknika lantzeraz.

- Buru-belarri sartu zinen mundu horretan...

Bai, lana, musika-ikasketak, entseguak... Ondo aprobetxatzen nuen denbora! Zer egiten duten gaztetasunak eta afizioak! Gaurko egunean, ordea, seguru ez nukeela egingo!

- Mallabira ezkondu zinen gero...

Bai. Donostiako abesbatza laga behar izan nuen, penaz, baina Eibarko abesbatza eman nuen izena etorritakoan. Bi urtez aritu nintzen bertan, haurdun geratu arte.

- Eten hori eta gero, korora batu zinen berriro?

Bai, baina aurretik Mallabiko Jasokunde abesbatza sortzeko proposamena jaso nuen. Mallabian umeen koroa martxan jarri nahi zuten, eskolaz kanpoko ekintza bezala, eta nirekin jarri ziren kontaktuan. Nik esan nien ahotsak sailkatuko nituela, baina ez nuela taldearen ardura hartu nahi, ez neukalako esperientziarik koroko zuzendari bezala, eta ez nuelako gustuko. 1993an koroa sortu nuen, eta 3 urte eman nituen bertako zuzenda-



ri. Baina nik abesten gozaten dut, eta abestu nahi nuen, eta utzi nuen.

- Eibarrera bueltatu zinen?

Ez, Ermuko Pispillu abesbatza hasi nintzen, eta 25 urte inguru eramango ditut bertan. Oso gustura nago!

- Pandemia ostean lehen-go erritmoa berreskuratu duzue?

Ba egia esan gauzak asko aldatu dira. Pandemian 10 bat abeslari bakarrik biltzen ginen, gutxieneko bat koroari eusteko. Orain ohiko entseguetara ekin diegu berriro, baina jendea falta da.

- Gogoan duzu egin zenuen lehen kontzertua? Eta azkena?

Ezinezkoa da lehen kontzertuaz akordatzea. 19 edo 20 ur-

te izango nituen, eta ordutik horrenbeste lekutan abestu dut! Azkena, berriz, 2020ko urtarrila edo otsaila izango zen, Begoñan (Bilbon).

- Bakarleri bezala ere aritu zara?

Bakarleri bezala askotan abestu izan dut, ezkontzetan adibidez. Behin casting bat egin nuen Bilbon, eta Händelen *El Mesías* abesteko aukeratu ninduten, Arriaga antzokian. Badakizu zer izan zen niretzat orkestra batekin abestea? Aipatzeko modukoa da ere Pergolesiren *Stabat Mater* abestu nuela Baionan, koroarekin eta orkestrarekin ere. Gogoratzen dut Maria Callas hil zela egun hartan (1977ko irailaren 16an).



Drogeteniturrri, 303 zk.



- Musikak bidaiatzeko aukera eman dizu?

Bai, asko bidaiatu dut. Coral de Cámaran nengoenean Bartzelonara joaten ginen urtero, mundu mailako koro kontzentrazioa egiten zelako bertan, eta astebete inguru ematen genuen han. Madrilen ere izan naiz, Zaragozan, Burgosen, Parisen...

- Zenbat hizkuntzatan abestu izan duzu?

Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, italieraz, ingelesez, latinez, errusieraz, zertxobait alemanez akaso...

- Errazagoa da menderatzen duzun hizkuntza batean abes- tea?

Ez pentsa. Baten batek azaltzen dizu nola ahoskatu behar den, eta zuk horrela egiten duzu. Berdin dio ez badakizu zer esaten ari zaren. Dena den, hizkuntza bat nabarmendu beharko banu, ingelesa litzateke. Hori da gehien kostatzen zaidana: buruz ikasi eta disimulatzen saiatzen naiz.

- Asko entseatzen duzu?

Ez. Egia da asko entseatu behar dela, baina musika ikasketak ditudanez, nahiko erraz hartzen ditut abestiak, eta gainera belarri ona daukat. Abesti bat behin entzunda ia nahikoa da. Erraztasun handia izan dut beti.

- Etxean abesten duzu?

Gero eta gutxiago. Biloba bat daukat, eta orain berari abesten diot. Liluratuta begiratzen nau!

- Zein egoeratan daude koroak gaur egun?

Gaur egun gazteak badaude, baina oso gutxi. Ni hasi nintzen garaian, 15-16 bat koro egongo ziren Donostian, gaur egun ez dakit zenbat egongo diren. Adierazgarria da baita ere urtean behin koroen eguna ospatzen dela herri ezberdin batean, eta egon naizen azkenetan oso jende nagusia doala. Ulertzekoa da. Egungo gazteak ikasten hasten dira, gero baxilerra, gero karrera, gero hau eta bestea... Dena batera



Maritxu Roteta (lehenengoa ezkerretik) Pispillu abesbatzarekin abesten.

ezin dute egin, eta are gutxiago herritik kanpora badoaz ikastera. Zaila da, baina tira, badaude gazte bakarlariak ere. Begira Izaro, Jasokunde abesbatzan hasi zen! Bestalde, koroetan oro har, gizonen falta dago.


- Aurrera begira...

Nire adinarekin ezin naiz proiektu berriei ekin! Abesten jarraitu nahi dut, ahal dudanera arte. Hori da nire bizitzako alaitasuna, arazoak arintzeko modua, lasaitasuna ematen didana.

Dorleta Vidal

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK

- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Ermuan, plazan, frontoiaren ondoan bizi ziren, pilota soinu artean haziz. Juan senarraren heriotzak bultzatuta Eibarrera bizi izatera joan zen Dolores ama, 8 seme-alabok hartuta. Hemen ere frontoia etxetik hurrar, nesken pilota-eskolak pil-pilean... Txaltxa-zelaiko frontoian arituko ziren pilotazaleenak, erdi olgetan erdi benetan.

Eibartik Madrilera abiatu zen Hipolita (Ermua, 1914), Poli izenez ezagututako atzelari bikaina. Pare bat urtera Irene (Ermua, 1918), 16 urteko neskatoa zela; Cortezo kaleko Madrid frontoian debutatu zuen eta aurrelaria izatean Poliren bikote modura jarri zuten. Bi ahizpok kantxaratutakoak dira Madrilgo Chiki-Jai zein Madrid frontoietan, Zaragozakoan, Bartzelonako Rambletakoan...

Rosariok ere (Ermua, 1909) Madrilera eta Zaragozara jokatu zuen, eta Bartzelonan egon zenean Condal frontoian aritu zen. Bitxori (Ermua, 1920), batez ere Madrilera ibili zen erraketari eraginez.

Frontoiko giroa

Irene eta Poliren arrimura ia familia osoa joan zen Madrilera. Jose Felix Igartuak, Ireneren semeak, honelakoak gogoratzen ditu: "Amamak kontatzen zidanez, gauean alaba biak jokatzen zutenean, palko bat gordetzen zuten familiarentzako eta bera ere alabak ikustera! Azken partidua bazen eurena, ordu txikietan amaitzen zuten. Imajinatu dezakegu giroa: gizon bezala, harmailetan kea ze besterik ez, dirua barabarra, apustuak, artekariak... eta eurak han, neska gaztetxo



Irene Ibaibarriaga. Madrilera, 1934an.



Poli Ibaibarriaga. Madrilera, 1934an.

Ibaibarriagatarrak, pilotari sena aldean

Lau erraketista eta zestalari bat eman ditu Ibaibarriaga Ormaetxea familiak, bostak profesional mailan jokatutakoak: Poli, Irene, Rosario, Bitxori eta Vicente. Neskok Madril, Bartzelona eta Zaragozako frontoietan erraketeatzen jardun zuten; Vicente, ostera, Mejikora eramango zuen bere zestalari lanbideak. Etxe-etxeok lagundu digute euren gainekoak osatzen.

batzuk". Laster ikasi zuten azpiko arropak ez erakusten: jausi aurretik, hanka bien artean sartzen zuten gona eta lurrera botatzen ziren gero. "Bizkortasuna ez zuten falta: bota, atoan altxatu eta dza, pilotari eman! Deabruen modura astintzen zuten pilota!".

Amancio anaia (Ermua, 1916) palarekin saiatu zen eta Madrilgo Recoletosen hasi zen entrenatzen, baina ez zuen aurrera jarraitu. Vicentek bai: zestalari izan zen, Ermua II izenarekin jokatuz. 40ko hamarkadan Zaragozako Aragonés frontoiko pilotari taldekoa zen, 50koan Mexikora abiatu eta 1960an, aktibo zegoela, auto-istripuz hil zen. Irenek eta Polik ere Ameriketara joateko gonbitea jaso zuten; frogatzeko gogotxoak zuten arren, amak ez zien laga.

Gerrak Madrilera jokatzen harrapatu zituen; gauzak gogortuz zihoazela ikusita, autobusez Valentziara eta handik Bartzelonara joateko aukera izan zuten. Gerran egon arren, sinestezina badirudi ere, hango frontoia martxan zeuden eta jokatzen eurak, bonbardaketa artean. Irenek kontatzen zuenez frontoietatik irtetean, dena apurtuta ikusten zuten eta arropa zatiak zuhaitzetatik zintzilik.

Poli Bartzelonan hil zen: torneo bat jokatzen ari zela, izurrite baten ondorioz gaixotu eta ostatu hartuta zegoen hotolean zendu zen. Kolpe latza izan zen Irenerentzat, baina jokatzen jarraitu zuen. Gerra ostean Madrilera arituko zen gehien bat, Madrid frontoiko erraketista koadrora itzuliz, eta udan 1938an zabalduko Donostiako Gros frontoian.



URRETA

burdindenda

<ul style="list-style-type: none"> ✘ Etxea ✘ Tresneria ✘ Brikolajea ✘ Erroak 	<ul style="list-style-type: none"> ✘ Giltzak ✘ Sarrailagintza ✘ Kit altzariak
--	--

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



Irene Ibaibarriaga, Ermuan 2003an erraketistei egindako omenaldian, IV. Pilota Egunaren harira.

Ireneren pilotari ezaugarrien-gatik galdetuta, semeak argitzen digunez bizi-bizia zen, indartsu jotzen zion pilotari. "Madrilen bizi ginenean, Casa de Campora joan laurok eta tenisera jokatzeko genuenean jendea begira-begira geratzen zitzaion, adinean aurrera baina guk baino hobeto moldatzen zelako erraketarekin". Bela-

rrian jasotako pilotakada baten ondorioz, erraketari agur esan eta segituan ezkondu zen, erraketista gehiengoak egiten zuen bezala.

Marzelo Totorikak, Rosarioren semeak kontatzen digunez erraketista sasoiak eurenean gutxitan egiten zen berba, "gerraren gainean ere gutxi egiten zuen bezala". Amak pilotakada

baten ondorioz aberia Itzela egin zuen belaunean; urteetarako lesioa izango zen hark bere erretiroa azkartu zuen. "Pilota utzi zuen eta, profesionaletan jokatzetik mutua moduko bat zuenez itxura denez, soldata txiki bat geratu zitzaion". Jose Felixen esanetan kartila bat zuten erraketistok: frontoiak hilerok soldatatik diru kopuru bat kentzen zien lesio bat suertatu ezker, jokatu ezean, kobratzen jarraitu ahal izateko. Gehiengoari baina jokatzeko zeudenean kotizatutako hori, gerora ez zaie ezertarako balio.

Txaro Fuentes, Rosarioren bilobak erraketista izateaz ahizpok "harro" zeudela irizten dio. "Gustatzen zitzaien jokatzeko eta gainera beste emakume batzuk baino askatasun gehiago izan zuten. Bidaiatzea, dirua irabaztea, etxetik kanpo bizi izatea... garai hartako andre askok izan ez zuten aukera eduki zuten!".

Estibalitz González



Vicente Ibaibarriaga Mexikon.

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi, auzolan!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERMUKO UDALEKO EUSKARA SAILAK XVIII JUANITA IBAIBARRIAGA LITERATUR LEHIAKETA ABIATU DU

Literatur Lehiaketa hau Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arteko ikasleei zuzenduta dago, eta parte hartu nahi dutenek ipuin, narrazio edo erreportaje bat idatzi beharko dute. Gaia libre da, eta lanak azaroaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira: emailaz (euskara@udalermua.net) edo aurrez aurre (Lobiano Kulturgunean edo ikastetxeetan). Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzeko 40 euroko erosketa-saria egongo da, Ermuko Merkatarien Elkarteko dendetan trukatu ahalko dena. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzeko, berriz, 60 euroko erosketa saria egongo da, Merkatarien Elkarteko dendetan trukatu ahalko dena ere. Sari banaketa abenduaren 3an burutuko da, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere. Lehiaketa honen helburua



Juanita Ibaibarriaga.

da gazteen artean idazteko zaletasuna piztea, euren hizkuntza aberastuz, espresibitatea hobetuz eta irudimena garatuz.

Ermuan urtutako eskulturek apaintzen dituzte Bilboko kaleak

Uribitarte pasealekuan eskultura multzo deigarria dago ikusgai: lau emakume, zirga edo txikota sendo batetik tiraka. XIX. mendeko lanbide latz bat irudikatu nahi du, emakumeak euren indar hutsez egiten zutena: soka baten laguntza soilarekin itsasontziak mugitzea itsasadarrean gora edo bazterrerara. Emakume zirgarion asto-behar gogor hau bistaratze eta omentze aldera, Dora Salazar artistak sortutako talde-eskultura udaberrian jarri zen Nerbioi bazterrean. Lau irudiok bi metroko altuera dute eta autoen ihes-hodien altzairu birziklatuarekin eginikoak dira, burdinazkoak ez diren materialekin. Areitiora bidean kokatuta dagoen Urkoase galdategian urtu ziren, nafarraren aurreko beste lan batzuk bezala. Bertako arduraduna den Jose Mari Ramosen esanetan hauxe da Dorarekin elkarlanean egindako guztien artean esanguratsuena, jarri den lekuagatik eta emakumeen jabeakuntzaren gaineko gaiek gaur egun gizartean duten oihartzunagatik.



Bertso saioa antolatu du Euskal Birusak urriaren 29an

Urtero bezala, bertso saioa antolatu du Euskal Birusak San Martin kulturala egitarauaren barruan. Aurtengo ekitaldian gertuko eskualdeko bertsolariak arituko dira: Miren Amuriza, Uxue Alberdi, Irune Basagoiti, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Nerea Ibarzabal. Gai jartzailea, berriz, Maite Berriozabal izango da. Bertso saioa urriaren 29an burutuko da, 20:30ean, Ermua Antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 eurotan, eta Lobianon erosi daitezke (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara), Internet bidez Kutxabankeko webgunean edo BBKko orotariko kutxazainetan.



Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferretaria ANBOTO
Burdindegi
Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu
943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es

SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

EUSKARAZ

ZABALDU
2021-2022
AUKERAK



UDAL
EUSKALTEGIAK
eskola ikasleak · cluets de kultura

◆ MATRIKULA
EPEA ZABALIK
Plaza de matriculación abierta

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

2021-2022 ikasturtea



Matrikula zabalik

Maila guztiak:
A1, A2, B1, B2, C1

Ordutegi zabalak Txandakako taldeak

Izena emateko epea
irailaren 24ra arte

BULEGO ORDUTEGIA:
9:00-13:00 eta 17:00-20:00

HABEren azterketa ofizialak
maiatzean eta urrian

16 urtetik gorakoentzat
Diru-laguntzak

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina

Goienkale, z/g 2. Solairua

Tf.: 943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net

UEU-K UDAZKENERAKO ANTOLATU DITUEN IKASTAROETARAKO MATRIKULA ZABALIK DAGO

Udako Euskal Unibertsitateak 16 ikastaro prestatu ditu udazken honetarako, etakitto.eus webgunean irakurri daitekeenez. Ikastaro guztiak euskaraz izango dira, edozeinek parte har dezake eta matrikula dagoeneko zabalik dago, Interneten (www.ueu.eus/ikasi/ikastaroak). Online bidez eskainiko diren zortzi ikastaroak hauek dira: "Sexu-hezkuntza lantzen haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan" (irailak 27), "Matematikak eskuratzeko zailtasunak: Diskalkulia" (irailak 27), "Ez utzi biharko gaur egin dezaitezuna: produktibitatea hobetzeeko metodoen oinarriak eta tresna digital lagungarriak" (irailak 28), "Eginen al dugu euskara ez sexista?" (irailak 28), "Proiektu bidezko metodologiak" (irailak 29), "Ikastetxeko espazioen erabileraren eta antolamenduaren azterketa genero ikuspegitik" (urriak 4), "Ikusmira aldatzeko feminismitik zelatan" (urriak 4) eta "Nola hobetu komunikazioa online bileretan" (urriak 4). Horiez gain, beste hiru ikastaro egingo dira Eibarren: "Bizipen taillerak. Helduentzako psikomotrizitatea" (urriak 2), "Segurtasuna sarean" (urriak 9) eta "Emakume sexualitatea. Barneko kantua entzuten" (azaroak 6). Azkenik, "Bizitzaren amaieran arreta" (urriak 2) izenburukoa egingo da Iruñean.

Mallabiko Udalak diru-laguntza emango die Haurreskolan umeak dituzten familiei

2020-2021 ikasturtean umeak Mallabiko Haurreskolan izan duten familiek diru-laguntza eskatzeko aukera izango dute. Gehienez, ordaindutako kuoten %50a jasoko dute eskaera egiten dutenek. Diru-laguntza hauen helburua bikoitza da: alde batetik, Haurreskolako matrikulazioa sustatu nahi da, Haurreskola itxi behar ez izateko; bestetik, familia eta lana uztartzen laguntzeko neurria ere bada. Eskaerak irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, aurrez aurre (Mallabiko erregistroan), zein online (www.mallabia.eus webgunean).



Caamaño & Ameixeiras bikoteak irabazi du aurtengo Folkez Blai lehiaketa

Irailaren 9a eta 11 bitartean, Folkez Blai lehiaketaren XVI. edizioa burutu zen Ermuan. Hainbat folk musika taldek parte hartu zuten lehiaketa honetan, eta haien artean Caamaño & Ameixeiras bikote galziarrak lortu zuen lehen saria (3.000 euro). Asturiasko Deira taldeak bigarren saria lortu zuen (1.500 euro). Rascanya (Valentzia), Sarrabete (Euskal Herria), Tribu Cendra (Madril) eta El nido (Gaztela eta Leon) taldeek ere finalean parte hartu zuten, eta epaimahaiaren arabera, finalerako sailkatu ziren guztiek oso maila ona eta proposamen aukera zabala eskaini zuten. Lehiaketatik kanpo jo zuten Felpeyu taldeak eta Jorge Arribas musikariak, hala nola iazko irabazleak ere, Howdy bluegrass-ek hain zuzen ere. Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatzen du Folkez Blai, folk musikako herriko taldeekin lankidetzan.



hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea - Ermua (Bizkaia)

info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

Bixi-denda Tailor-pepitoa Etxoia-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

DG Horacio Decoración

TAPIERIA - ALIZARIK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dgdecoracion.com

Artarrai Mendi Taldeak uda osteko ekintzei ekin die

Artarrai Mendi Taldeak martxan jarri du XIII. Lau Haizetara Argazki Lehiaketa. Parte hartu nahi dutenek, irailaren 30a baino lehen bidali beharko dituzte euren argazkiak artarrai@euskalnet.net helbidera, egilearen izen-abizenak eta argazkia non aterata dagoen adierazita. Hainbat argazkilarik osatuko dute epaimahaia, eta guztira 2 sari banatuko dira: 70 eta 50 eurokoak, hurrenez hurren. Gainera, parte-hartzaile guztien artean 35 euroko saria zozketatuko da. Elkarteko bazkideei zuzendutako lehiaketa honek 3 helburu ditu: alde batetik, Artarraiko mendizaleak non egon diren ikustea; bestetik, txangoak egiteko ideiak hartzea; eta azkenik, elkarteko blogari bizitasuna ematea. Honez gain, Artarraiko urteko batzar orokorra egingo da urriaren 2an, Leku Eder elkartearen, 10:00etan. Azkenik, Europako Mendietara irteera burutuko du ElkarTE honek urriaren 9a eta 12a bitartean. Urdón-Tresviso eta Evangelista-Morra de Lechugales ibilbideetan, eta Las Moñetas lakuan izango dira besteak beste. Informazio gehiago jasotzeko Teresa Murgako bigarren solairura jo beharko da, ostegunean 19:30ak eta 20:30ak bitartean (*Arg. Artarrai Mendi Taldea*).



ERMUKO UDALAK 90 EUROKO LAGUNTZAK EMANGO DITU ESKOLA MATERIALA ERMUAN EROSTEKO

Ermuko Udalak gure herrian eskola-materiala kontsumitzeko laguntzak eskainiko ditu aurten ere. Arduradunek adierazi dutenez, proiektu honen helburua bikoitza da: alde batetik, tokiko establezimenduetan erosketak egitea sustatzen da; bestetik, ikasturte hasieran ohikoak izaten diren gastuak arintzen dira. Dirulaguntzak gehienez 90 eurokoak izango dira ikasle bakoitzeko, eta 2021eko irailaren 1etik urriaren 30era bitartean Ermuko dendetan egiten diren arropa, oinetakoak, kirol-materiala, eskola-materiala (testuliburuak izan ezik), material informatikoa, betaurrekoak eta lentillak erosteko gastuak ordaindu ahal izango dira. www.ermua.es atarian ikus daitezke onuradunek bete beharreko baldintzak, hala nola eskaera aurkezteko beharrezkoak diren agiriak. Agiri hauek irailaren 28tik abenduaren 5era arte bideratzeko aukera egongo da, Ermuko Udalaren egoitza elektronikoen bidez, edo Abiapuntu bulegoan, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara. Iaz 2.235 eskaera aurkeztu ziren (2.205 Abiapuntun eta 30 telematikoki), eta guztira 192.303,55 euro banatu ziren: 140.591,55 euro 2 eta 16 urte bitarteko gazteei, 49.194,16 euro 16 eta 25 urte bitartekoei, eta 2.518,09 euro 25 urtetik gorakoei.

Hondakinen gaikako bilketak %2 egin du gora azken urte eta erdian Debabarrenan

Barren.eus webgunean irakurri daitekeenez, 2020an Debabarrenen gaikako bilketa %54,02koa zen, eta, hamabi hilabete geroago, 2021aren hasieran, %55,26ra igo zen. Datu horien arabera, urte eta erdian, eskualdeko gaikako bilketa ia %2 igo da. Debabarreneneko Mankomunitateak Plan Estrategikoa aurkeztu zuen 2020ko ekainean eta 2030erako gaikako bilketaren %70a lortzeko helburua ezartzen da bertan, hori lortzeko gakoak azalduz. Harrezkero urtebete pasa da eta gaikako bilketak eskualdean izan duen bilakaera adierazten duten datuak plazaratu dituzte orain. Datuok positiboak direla adierazi dute arduradunek.

FUB Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Miren Astarloa Laka, sustatzailea eta langilea herriko hainbat jardueratan

Betiondo baserrian jaio zen duela 86 urte, eta askok Miren Betiondo esaten diote. Kementsua da, garraiolari bezala egin zuen lan, eta ezaguna da Alargunen Elkartea martxan jartzeagatik eta San Martin Azokako edizio guztietan talogile aritzeagatik, besteak beste.

Bizitza guztia baserrian lan egin duela aitortzen du, baina baserri-kanpo ere hamaika lan egindakoa da Miren Astarloa ermuarra. 12 urterekin eskola utzi zuen, eta "Señorita Paulina"rekin ikasten jardun zuen eskola partikularretan. Sukaldaritza ikasi zuen gero Eibarren; baita bordatzen ere, Donostiatik etorritako irakasle batekin, eta bordatzaile irakasle titulua atera zuen. Katekista lanetan ere jardun zuen, eta 28 urterekin garraiolari batekin ezkondu zen. Seme-alabak jaio eta urte gutxira alargun geratu zen, duela 49 urte. Ordutik eta jubilatuta arte (2000. urtean), Miren Astarloa garraiolari bezala egin zuen lan, bulegoan batez ere, baina baita furgoneta handi bat gidatzen ere.

Gorabehera guztien gainetik, bere izaera partehartzaileari



eutsi zion. "Umeak eskolan hasi zirenean, bertako Gurasoen Elkartean hasi nintzen: Guillermo Sainz zen presidentea, Lorenzo Quílez idazkaria, eta ni diruzain izendatu ninduten, eta Erregeen lehen kabalgata antolatu genuen —gogoratu du Mirenek—. Garai hartan, Santiago Apóstol nesken eskola zen, eta Teodoro Zuazua mutilena, baina urte horietan neskek eta mutilek elkarrekin ikastea erabaki zen. Eskola bietako Gurasoen Elkarteko presidente jarri ninduten, eta lan itzela egin genuen".

Alargunen elkartea

80. eta 90. hamarkadetan, elkartea loratzen hasi ziren Ermuan, eta Astarloak gogoan

du Don Julian Olazabalaga apaizak haietako asko sustatu zituela. "Meza oste batean hainbat emakumeri deitu zigun eta alargunen elkartea sortzea proposatu. Han geunden Agur- ne Agirregomezkorta, Luisa Egia, Mari Carmen Mugika, Pilar Bilbao, Maritxu Ortuzar eta Justina Antxia. 1990eko abenduan sortu genuen elkartea, eta ni izendatu ninduten presidente. 10 urte inguru egon nintzen zeregin horretan. Arrakasta itzela izan genuen —gogoratu du pozarren—. 300 bazkide izatera heldu ginen!". Egun bateko edo biko txangoak egiten zituzten, ikastaroak (igeriketa, joskintza, sofrologia, euskara...), erretiroak, topaketak, lehiaketak..., eta

Udaleko Merche González izan zuten bidelagun handia. Lokal bat izan ez izanaren pena du, baina hala ere 2005ean lehen tonbola solidarioa antolatu zuten, gaur egun ere martxan jarraitzen duena.

Elkartea sortu eta 18 urtera desegin zen (2008an), besteak beste gizartean egondako aldatetek eraginda. "Gaur egun oso ezberdina da alargun geratzea. Nire garaian elizatik, kanposantura eta kanposantutik etxera joaten ginen. Arropa guztia oparitu nuen, beltza izan ezik —azaldu du—. Orain ezberdina da, alarguntasuna sufrimenduarekin biziko da ere, jakina, baina ez dago lehenengo bakardadea, beste modu batera eramaten da".

Taloak erretzen

1990an San Martin Azokako lehen edizioa burutu zen, eta urtero-urtero kale egin barik, taloak erretzen jardun du Mirenek azokan (2019an izan ezik, epaimahaikide lanak egin zituelako). Gogoan dauka lehenengo azokan ez zirela taloak egin, baizik eta txorizo bokadilloak, eta hantxe egon zen lan eta lan. Ordutik, plantxaren atzean ibili da, taloari buelta eta buelta egiten, eta gogoan dauka Luis Mari Malaxetxeberria "Murtzi"ren etxera joaten zirela plantxa haiek garbitzera. Azaldu duenez, taloa ondo erretzeko sua beroa egon behar da, baina ez beroegi, eta 3 buelta ematea nahikoa da. Izugarri gozatzen du azokan, nahiz eta berak ez dituen taloak jaten: "Niri taloa esnearekin gustatzen zait".

Dorleta Vidal



Drogeteniturrri, 303 zk.

Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarkekoak
 Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apandegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Jone Zalduegi, integratzaile soziala eta sexualitatean aditua:

“Zaila izan daiteke ziberindarkeria antzematea”

Urriaren 6tik azaroaren 3ra arteko asteazkenetan ziberfeminismoei, autodefentsari eta ziberindarkeriei buruzko tailerra burutuko da Emakumeen Topalekuan. Teknologiak, sexualitateak eta emozioek daukaten loturan aditua den Jone Zalduegi Urresti feminista eta integratzaile sozialak gidatuko du nerabeei zuzendutako ikastaro hau.

- Zer da ziberbullinga eta ziberindarkeria?

Internet eta sare sozial digitalen bitartez egiten diren erasoak dira. Ez dira eraso edo jarrera desegoki isolatuak: modu jarraituan gertatzen dira eta, gainera, talde batek eraginda izan ohi dira. Hala ere, askotan ezezagun batek edo pertsona anonimo batek eragiten ditu.

- Indarkeriak salto egin du espazio publikoetatik pribatuetara...

Bai. Ohiko indarkerian pentsatzen dugunean espazio bat datorkigu burura: eskola edo eskolaz kanpokoak. Kasu honetan, aldiz, irudikatu dezakegu mugikorarekin bakarrik dagoen gazte bat, bere logelan, guztiz beldurtuta. Indarkeria mota hau antzematea zaila



goa izaten da, eta gazteak jasango duen min psikologikoa handiagoa izan daiteke. Izan ere, indarkeriak modu eta forma ugari ditu, eta garrantzitsua da gazteek haiek guztiak ezagutzea, detektatu ahal izateko.

- Egoera horiek antzemateko eta aurre egiteko tresnak eskainiko dira ikastaroan?

Bai, egia eta gezurra desberdintzen lagunduko diegu, besteak beste. Gazteek informazio asko daukate, sarean mugitzen dakite, baina kontzeptu ba-

Ermuko Emakumeen Topalekuak jabekuntzarako hainbat ikastaro antolatuta ditu, urria eta abendua bitartean burutuko direnak. Errotik kooperatibak kudeatuko ditu ikastarook, Emoki Elkartearekin lankidetzan. Informazio gehiago jasotzeko: Emakumeen Topalekua (Izelaieta kalea 12), 943171030 eta casa-delamujer@udalermua.net.

tzuk argi izan behar dituzte, eta heltzen zaien informazioa barneratu ahal izateko denbora hartu behar dute.

- Zer nolako saioak izango dira?

Saio teoriko-praktikoak izango dira, eta metodologia aktiboak erabiliko ditugu. Sormena landuko dugu, pil-pilean dauden gaien inguruan eztabaidak proposatu... Emozioetaraino ailegatu nahi dugu, hori delako motibatzeke, ikasteko eta edukiak barneratzeko modurik eraginkorrena. Gazteak enpoderatu nahi ditugu, espazio digitaletan eta haien bizitzetan orokorrean aukeraketa kontzienteagoak egiteko.

Dorleta Vidal

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
Y LAN BABESARAKO
ORNDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiurre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia
Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

Txakur aurpegia

Uda honetako egun batean, motxila gainean herri batetik bestera, motxilaren pisua arintzeko asmoarekin mezularitza-bulego batera hurbildu nintzen, eta metakrilatozko manpararen atzean zegoen langileari pasatu nion pakete bat. Lagun bati bidali behar nion liburu bat zegoen barruan, baita jada behar ez nituen hainbat gauza ere. Langileak paketea pisatu zuen, eta esan zidan bere pisua bostehun eta sei gramokoa zela. Berak azaldu zidan, bostehun gramora arteko prezioa sei eurokoa zen; hortik aurrera, hamabi eurotik gorakoa.

Nik dirutan 10 euro nituen bakarrik, eta txartelarekin ordaintzeko aukera ez zegoen une horretan, herri txikia izanda kobertura gutxi zegoelako.

"Beno, sei gramo dira, besterik ez", esan nion, konbenitzeko itxaropenarekin. Bostehun markatzen baduzu inor ez da konturatuko, esanez bezala. Baina ez, makina bat bezala erantzun zidan: "Bostehun gramoak gainditzen ditu, hamabi euro eta hogeita dira. Zuk

ikusit". Orduan pentsatu nuen maskara baten atzean errazagoa zela makina bat bezala jokatzeko.

Momentu horretan La Polla Records taldearen *Cara de perro* abestia burura etorri zitzaidan.

Zuk ikusi. Nik uste bi hitz horiek egin zidatela min gehien, hamabi euroak ordaindu beharrak baino. Zure arazoa da, ez nire, esateko modu hotz horrek.

Orduan nire atzean zegoen emakume bat hurbildu zitzaidan, eta esan zidan berak ordainduko zuela falta zitzaidana.

Gauean, aterpean, pentsatzen egon nintzen: goizean lagundu zidan emakume hori; tabernari hori, barrara iritsi aurretik zuri begira dagoena, itxaron beharrik izan ez dezazun; lankide hori, lanean topera zaudenean laguntzen dizuna; oporretara zoazenean etxeko landareak ureztatzen dizkizun aukidea; ikasgaia berriz azaltzeko pazientzia duen irakasle hori; oporrak antolatzen dituzueanean nora joan eta



Jabi Vidal

zer egin bilatzen duen lagun hori; afari bat antolatzen duzueanean jatetxea enkargatzen duen laguna...

Denok ezagutzen dugu pertsona horietako bat. Bizitza errazten diguten pertsonak dira. Bizitza zaila da. Beraz, egin daitekeen onena bizitza errazteko gaitasuna duten pertsonen ingurutzera da. Egunerokoak ematen digun oparrietako bat dira. Eta goizeko langileak, bada, aginduak bete besterik ez du egin, bere lana egin du, besterik ez; baina pena sentitu dut, pentsatu dudalako pandemia honen ondorioz agerian geratzen ari direla gizartearen gabezia asko, baina baita gutako bakoitzaren gabeziak. Gure beste gaixotasunak. Gizarte honetan gero eta zailagoa dela bestearenganako enpatia agertzea; bestearen arazoak, arazoak baino gehiago bestearenak direla gero eta gehiago.

“ Pandemiaren ondorioz agerian geratzen ari dira gizartearen gabeziak ”

mari asun
LORADENDA




Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI www.spara.es
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

SAN PELAYO
HORTE EL NUBIA Y CLINICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Cof. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clnicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ELISABETH ARETIOAURTENA UGARTEBURU

- Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo urteak?

Oso alaiak izan ziren, zaratza beteak. Gogoratzen dut haurtzaroan tabetara jolastu nuela neba-arrebekin etxean, batez ere txikienekin. Kanpoan ere denbora igarotzen genuen, kotxeen matrikuletara edota kolo-reetara jolasten. Gaztaroa, oster, lagunekin gogoratzen dut, kuadrilakoekin. Oso gaztaro ederra izan nuen, neska eta mutilez inguratuta. Gerora Zuloa sortu zen Ermuan, eta ezagutzen ez genituen gazteekin ere harremanetan jarri ginen, momentu berriak sortuz.

- Gogoan duzu umetan zer izan nahi zenuen?

Ba inoiz ez dut pentsatu ea txikitari zer izan nahi nuen. Egia da gaztaroan zehar begirale bezala aritu nintzela, bai udalekuekin eta baita dantza taldean ere. Agian horregatik, ikasten hastean, berehala erabaki nuen irakasle izan nahi nuela.

- Ikasketetan gustora aritu zinen, beraz...

Noski! Magisteritza Donostian ikasi nuen. Ahizparen etxean egon nintzen urte horietan, eta egia da pena pixkatekin egon nintzela, beste ikasle batzuekin etxea ez partekatzeagatik. Baina honela Donostiako jendea ezagutu nuen, eta plan izugarriak egiten genituen. Arratsaldetan Alde Zaharretik ibiltzen ginen, baita beste hainbat kaleetatik.



Familia handi batean jaiotako ermuarra, zortzi anai-arrebetatik gazteena, hiru seme-alaben ama. Mallabiko eskolan irakaslea da, eta mendian aritzea eta kanpoko kirolak ditu gustoko, baita irratia entzutea ere.

- Orain ere kalea duzu tokirik gustokoena?

Kuadrillarekin batera. Lan egin ostean tragotxo bat hartu eta lagunekin egotea eguneroko presente ditudan gauzak dira. Baita asteburuetakoa *marianitza*, hori falta barrik!

- Urte batzuk badira lanean hasi zinenetik?

Bai. 1986an ordezkapen bat egin nuen, eta hurrengo urtean Anaitasuna Ikastolan hasi nintzen, eta bertan 28 urte egon nintzen. Hortik Mallabiko eskolara joan, eta hor egon naiz geroztik.

- Beti irakasle bezala?

Orain zuzendaritzan nago. Anaitasuna Ikastolan ere

zuzendari egon nintzen. Ez da gehien gustatzen zaidan postua, baina ulertzen dut norbaitek egin behar duela. Azken finean, eskola batek aurrera egiteko beharrezkoa da.

- Zer da gehien gustatzen zaiuzuna irakaskuntzan?

Irakastea. Orain faltan botatzen dut ikasleekin harremanean ibiltzea, harremanak sortzea beraiekin... Horrelako uneak gustatzen zaizkit gehien. Ikasleari heletzea. Ikasle batekin kostatzen denean ere, emaitzak lortzea oso polita iruditzen zait. Eta behin harreman hori sortzea lortzen denean, gerora ere mantendu egiten da.

- Zerbait ikasten da ere?

Noski! Gurasoek irakatsi zidaten bizitzak ekarritakora moldatu egin behar dela, eta honekin egin dut aurrera. Bete ez dira momentu alaiak izaten, batzutan larrosak diren arren, beltzak eta grisak ere izaten ditugu, eta hauek kontuan izatea ere garrantzitsua da.

- Eta irakatsi ostean zer?

Urte sabatiko bat hartuko dut laister, eta bidaiari joatea gustatuko litzaidake. Italia dut buruan, karabana-rekin Frantziako kostaldean ere ezagutu *botari* buelta ematea gustatuko litzaidake. Lasai-lasai, bitarteko herritxoak ere ezagutu.

Nahia Ruiz Albizuri



SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

Enkarguak
943 030 299

MALLABIA 1967

Andramarixetan txistulariak.
Ezkerretik eskumara
Luis Mari Izagirre,
Santi Urzuriaga
eta Emilio Txurruka.



ERMUA 1959



Uda, jai-giroa,
musika nonahi eta
dantzarako gogotsu
beti. Dantza-soltean
egiteko, oraintxe
fandangoa eta
ondoren arin-arina;
bailableak, ostera,
ondo oratu bikoteari
eta *agarrau* estuan:
balsak, pasodobleak,
habanera, tangoak,
txotisak... Han-
hemenka galdetuz,
ahaleginak egin
arren, pertsona biren

izenak identifikatzerik izan dugu: Fernando Izagirre parez-pareko bikotea osatzen eta ezkerrean Angel Fernández, amantalduna ere dantzara atera zuena nonbait. Jaka zintzilikatzeko edozerk balio zuen erakusle, esekitoki gisa erabilitako eskuma aldeko belar-meta hori.



Drogeteniturrri, 303 zk.

Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648625209.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.
© 617 67 49 27



Irailaren 25ean
Zorionak Ainere!
8 urte haundi dagoeneko! Patxo erraldoi bat familia guztiaren partez!



Zorionak Ane!!!!
Irailaren 5ean 7 urte beteko dituzu. Musu asko Eder, Izaro, Nico eta Vaneren partez. Asko maite zaitugu!!!!



Irailaren 25an Carlos, etxeko erregea, eta **irailaren 27an** Oihane, etxeko printzesa. Zorionak zuen urtebetetzetan!



Abuztuaren 28an eta irailaren 13an
Zorionak Enara eta Intza!
Muxu handi bat familiaren partez!
Maite zaituztegu!



Zorionak Alba, **uztailaren 7an**, zure 6. urtebetetzean, eta Daniel, **irailaren 15ean**, zure 10. urtebetetzean. Zuen lehengusina eta osaba-izekoren partez. Asko maite zaituztegu!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Urriaren 20a.**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendaurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Kopi-Fax

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Hamburguesería TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ZINEA

Urriaren 2tik 5ra.
Urriaren 9tik 12ra.
Urriaren 16tik 19ra.
Urriaren 23tik 25era.
Urriaren 30etik 2ra.

Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Urriaren 7an.
Urriaren 14an.
Urriaren 21ean.
Urriaren 28an.

Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Urriaren 3an.
Urriaren 10ean.
Urriaren 17an.
Urriaren 24an.
Urriaren 31n.

Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA

Urriaren 1ean:
 Kontzertua: Nil Moliner.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15 €.

Urriaren 2an:
 Blues kontzertua: Doug Mcleod. 20:00etan.
 Lobiano Kulturgunean.
 Sarrera: 10 €.

ANTZERKIA

Urriaren 6an:
 "Los que hablan",
 Malena Alterio
 eta Luis Bermejorekin.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 12 €.

Urriaren 15ean:
 "Onán", Llum Barrera,
 Iñaki Miramón
 eta Fernando Sotorekin.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15 €.

Urriaren 22an:
 "La isla", Histrión Teatroaren
 eskutik. 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Urriaren 2an:
 Ipuin-kontaketa ingelesez.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

Urriaren 16an:
 Musikala: "Liluragarria",
 Ene Kantak
 taldearen eskutik.
 17:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 6 €.

Urriaren 23an:
 Ipuin-kontaketa.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

ERAKUSKETAK

Urriaren 11tik 24ra:
 Mikologiari buruzko
 argazkiak:
 18:00etatik 20:00etara.
 Lobiano Kulturgunean.

**Urriaren 25etik
 azaroaren 11ra:**
 Margoak: Durangaldeko
 arte elkartearen lanak.
 Lobiano Kulturgunean.
 18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

Urriaren 21tik 24ra:
 Mikologiari buruzko
 jardunaldiak:
 hainbat ekitaldi.
 Lobiano Kulturgunean eta
 Orbe Kardinalaren plazan.

**Urriaren 25etik
 azaroaren 11ra:**
 Gastronomiari buruzko
 jardunaldiak:
 hainbat ekitaldi.

Urriaren 29an:
 Bertso jaialdia:
 Miren Amuriza,
 Uxue Alberdi,
 Igor Elortza,
 Irune Basagoiti,
 Unai Iturriaga
 eta Nerea Ibarzabal.
 Gai jartzaile:
 Maite Berriozabal.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA**
**Tokian
 tokiko**

PRO
 arraindegia



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpet
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Marparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Edoareak
- Eitxo-sareak
Tawera:
Zentroko Buztea 2
943 17 86 34 - 830 01 73 41
48200 Ermua (Bizkaia)
Ereketza:
Karabasa 1
48200 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianeorbe@gmail.com

ELEKTRIZITATEA
BETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ETXETRESNAK
Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



Kaltxango AEK euskaltegia



Euskalduntzea

C2 aurrez aurre

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza

Berbalagun

Txandaka aritzeko aukera

%100era arteko diru-laguntzak

Zearkale 16

943 17 19 40 · kaltxango@aec.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
maila egiaztatuz gero.

**ERMUKO ETA MALLABIKO
UDALA**



Aurrez aurreko eskolak



Mintzapraktika



Barnetegiak



Autoikaskuntza



Online



aizu! aldizkaria



Normalizazio-planak



Itzulpenak-Zuzenketak

**Eman
izena**

- HABEK homologatutako euskaltegiak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

www.aek.eus
673 200 100 · 946 464 000

